

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mayie Etchegoinberry

*Landibarre,
Nafarroa
Beherea (1950)*

Aurkibidea



Biografia



Ezkonduz geroztik Sorhouet. Landibarren sortua, guraso biak bertakoak zituen. Laborantzatik bizi ziren. Bost haurridetan erdikoa eta neska bakarra, Landibarreko eskolan ibili zen 14 urte bitarte eta gero Donaixtiko seroren ikastetxean, laborantzako eskolan 19ra arte. Udatan begirale egoten zen ikastetxeko hurrekin. 19 urterekin notario baten etxean hasi zen lanean, Donapaleun. Halako batean senarra izango zena ezagutu zuen, Ameriketara bizi zen Kayet Sorhouet (1964an Wyomingera artzain joana, San Franciscon zegoen lanean, baratzeen negozioan). Mayie 1978an joan zen hara, esposatuta. Seme bat eta alaba bat izan zituzten. Mayiek etxeak garbitzen egin zuen lana. San Franciscoko euskal etxean oso aktiboki hartu du parte familiak (dantza, pilota, musa, klika...). 1994an Landibarrera joan ziren, bertan bizitzeko geratzeko asmoz (etxea ere salduta), baina 9 hilabeteren buruan bueltatu egin behar izan zuten (lana aurkitu ezin, seme-alabek ez zuten han bizi nahi...).

Zintak

LAN-002

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-10-04
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com